

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektua aurrera eramateko behar dugun baliabide fisikoa ordenagailua izango da batez ere. Egia da, hasieran, plataforma programatzeko toki bat beharko dugula; izan ere, taldeko edonoren etxean egin dezakegu. Gure proiektua hazten joaten den heinean, baliabide gehiago beharko ditugu; esaterako, toki fisiko bat non langile gehiago biltzeak ahalbidetzen digun, ordenagailu eta ekipo informatiko gehiago, etab. Hori guztia kontuan izanda, oraingoz nahikoa dugu informatikaren inguruan dugun jakituriarekin, web-gune bat sortzea ez baita oso konplexua. Erabiltzaile kopurua handitzen joaten den bitartean, gure plataformaren diseinua eta edukia ere askotarikoa izaten hasiko da; pixkana-pixkana gure proiektua garatzen joango baikara.

Beharko ditugun baliabide intelektualak anitzak izango dira. Batetik taldeko partaide baten abilezia teknologikoak beharko ditugu webgunea diseinatzeko eta horrek modu egokian funtzionatzeko. Halaber, taldeko partaide diren eta kontratatuko ditugun irakasleen jakintza beharko ditugu material didaktikoak sortzeko. Horiek egokiak izan daitezen, ezinbestekoa izango zaigu argitaletxeekin izango dugun harremana. Azkenik, izango ditugun diru-sarrerak eta beharko ditugun funtsak modu egoki eta bereziki eraginkorrean kudeatzeko EAZn graduatuak direnen jakintza ekonomikoa baliatuko dugu. Dena dela, beharko ditugun baliabide intelektualak aldakorrak izango dira kontuan izanik denborarekin plataformak izango dituen beharrak desberdinak izango direla.